



Irailaren 5ean, Bilboko Guggenheim Museoan Manpower Groupek azpikontratatura dauden Gida eta Hezitzaileek greba mugagabea hasi zuten 18 hezitzaileen kaleratzea salatu eta lan-baldintzak hobetzea eskatuz. Gaur, hilak 14, LAB sindikatuak giza-katea egin du, Eusko Jaurlaritzatik hasita Guggenheim Museora zuzendu gara. Bertan Ainhoa Etxaide, LABeko Idazkari Nagusiak, salatu du “ez dagoela inongo arrazoirik langile hauen prekaritatea eta kaleratzea justifikatzen duenik”.

Guggenheimeko langileen prekaritatea eta kaleratzea justifikatzeko erabili diren argudioak faltsuak dira. Krisian zehar, arrazoi ekonomikoa jarri zituzten mahai gainean, baina Etxaidek azaldu duen bezala “Guggenheim diru iturri itzela da”. Lehiakortasuna ere izan dute hizpide, baina “Guggenheimen ez dago preziotan lehiatzen duen ezer". Azken argudioa eta Etxaideren aburuz salagarriena da “kualifikazioa falta erabiltzen dutela, langile hauek Guggenheim museoko patronatoa osatzen duten pertsonak baino kualifikatuagoak daudenean”. Argudio anker hauen atzean ezkutatu nahi dute arrazoi erreala: “patronatoak erabakitzen du langileek zenbat balio duten, beraien ekarpenek zenbat balio duten eta instituzioek utzi egiten die ezarritako balio hori aplikatzen eta miseriazko soldatak ordaintzen”.

Bestalde, Etxaidek mezu bat bidali nahi izan dio Urkullu jaunari bere alderdiak zuzentzen baititu egoera hau konpon dezaketen hiru instituzioak, bai Udaletxea, Diputazioa zein Jaurlaritzak: “Urkulluk eta EAJk ezin dute beste aldera begiratu honelako egoerak ahalbidetzen dituzten politikak aplikatzen dituzten bitartean”. Urkullu iruzur egiten ari da esaten duenean gizartearentzat baduela eskaintza bat patronalari eskatzen duen guztia ematen dion bitartean.

ALBISTE GEHAIGO

{module[648]}



